




Euskal literaturaren transmisioa irakaskuntzan

Idurre Alonso Amezua
(Huhezi)



Esperientziak partekatuz

- ❑ Nola ikasi nuen literatura? Zein oroitzapen daukat ikasgaiaz?
- ❑ Nola lantzen genituen irakurgaiak? Nola hautatzen genituen? Zein iritzi dut haietaz?
- ❑ Irakurtzen al dut euskal literaturarik gaur egun? Erdal literaturak baino gehiago?



**Literaturaren irakaskuntza
historian zehar: zein helburu izan
ditu? Zein du gaur egun?**

Literaturaren irakaskuntzaren historia

Erromantizismoa (1800 urtearen inguruan)

- Derrigorrezko hezkuntza:
 - 1) herriaren jakinduria sustatzeko (lekuan lekuko hizkuntza, ahozko herri literatura...)
 - 2) Kontzientzia nazionala bultzatzeko

- Literaturaren irakaskuntza: literatura nazionalen ezagutza bermatzeko
 - 1) Ondare literario nazionala osatu (autore batzuen kanonizazioa)

XX. mendea: 70eko hamarkadatik aurrera

XX. mendearen amaieran hezkuntzaren ikuspegi berria: ikasle guztiak prestatu behar ditugu lan bat lortzeko gai izan daitezen eta herritar kritiko eta aktibo izan daitezen.

Horretarako:


- Informazioa memorizatzeari utzi eta egiten irakatsi behar da.
- Metodologia partehartzaileak bultzatu behar dira.
- Edukiak ikasleen interes eta beharretara egokitu behar dira.
- Hizkuntzaren eta literaturaren irakaskuntza gaitasun komunikatiboak lantzerantz bideratu behar da.



Ikasleak konpetentzietan hezteko gakoak

- Testuinguru errealak planteatu: arazo eta egoera errealak ebatzi. Garaia-idazlea-lanak eskema gainditu.
- Egiten irakatsi: ikasleak praktikan jarri behar du ikasitakoa.
- Elkarrekin ikasi behar da, gerora ere taldean lan egiten jakin dezaten eta elkar aberats dezaten.
- Motibatuta eta eroso sentitu behar dira.

Konpetentzien markoak eragin du ikuspegi berria
literaturaren irakaskuntzan



- Ikaslearen gaitasun komunikatiboak garatzea helburu: gertaera komunikatiboak ulertu, landu eta interpretatzeko gai izatea, esanahi literalaz gain, intentzionalitatea ere barneratuz. Beraz, hizkuntzaren arau sozial, kultural eta psikologikoak ere aintzat hartu behar dira.
- Hezkuntza eta naziotasuna bereizteak ekarri du metodologia eta corpus aldaketa.

Literatura lantzeko proposatu izan diren ariketak

■ SORKUNTZA LANTZEKO

- a) Bukaera emateko jarduerak: hasiera eta korapiloa emanda, bukaera idatzi.
- b) Alderaketa jarduerak: gai bereko poemak garai desberdinetan, forma aldetiko alderaketak egin...
- c) Ordezkatze jarduerak: testuaren elementu bat aldatu, eta testua nola geratzen den ikusi.
- d) Konposizio jarduerak: testua beste genero batean sortzea.

■ ULERMENA LANTZEKO

- e) Antolaketa jarduerak: ordenatu gabe eman diren paragrafoak ordenatu.
- f) Iragarpen jarduerak: irakurri ahala, hipotesiak egin.

■ INFORMAZIOA KUDEATZEKO

- g) Arazoen ebazpena: lan baten inguruko ikerketa, testuko topiko baten ingurukoa...

Beraz, zer lantzen dugu literaturarekin?

- Pentsatzen ikastea
 - Ideiak ordenatzen ikastea
 - Mundua ezagutzea
 - Imajinatzea
- Interpretatzea
 - Sintetizatzea
 - Eztabaidatzea, argudiatzea
 - Baloreak
- Bizitzan jokatzeko moduak
 - ...



Praktika on bat

“Las mil y una lenguas” (Nafarroa)

Egoera erreala: LHko ikasleei aipatu zaie liburuaren egunerako irakurketarekin lotutako ekimen bereziren bat proposatu behar dutela. Zer erabaki dute egitea?

- ❑ Gurasoek hizkuntza desberdinetan ipuinak kontatzea.
- ❑ Seme-alabek ipuinak dioena sintetizatzea.
- ❑ Hizkuntza hori munduko zein aldetan hitz egiten den ikusi eta mapan kokatzea.
- ❑ Alfabeto ezberdinak ezagutzea.



Txanogorritxu: ipuinetik albistera (HUHEZI)

Haur bat eta bere amona onik atera dituzte otso baten sabeletik

Otso batek jandako amona eta biloba haren sabeletik onik askatzea lortu du bart ehiztari talde batek Gorbeiaiko natura parkean.

Atzo, arratsaldeko zazpiak aldera, ehiztari talde batek 10 urteko neska bat eta 68 urteko andre bat ehizatu berri zuten otsoaren sabeletik onik atera zituzten, Gorbeiaiko natura parkearen baitan kokatuta dagoen Manurga herrian. Ehiztariak egun osoa zeramaten otsoa ehizatu nahian eta, arrastoek Manurga inguruko etxe batera eraman zituzten. Etxe hartatik metro gutxira igarotzen den Isisibarri ibai ertzean ondoezik zegoen otsoa aurkitu zuten. Ehiztariak otsoari tiro egin eta sabela irekitzea erabaki zuten, sabel barnean zuena zer ote zen jakin nahian. Egundoko ezustea eraman zuten animalia haren barnean bi pertsona zeudela ohartzean. Bi pertsona horiek M. Agirrebeitia 68 urteko andrea eta A. Sorozabal andrearen 10 urteko biloba dira [...]



Iritziak partekatuz

- Baliagarria al da eredu hau guretzat?
- Ba al dago alderik hizkuntza gutxitu bateko literatura irakastetik hizkuntza handi bateko literatura irakastera? Zein?
- Zeinek izan beharko luke euskal literatura irakastearen helburua?

Estatirik gabeko literaturen kasua

- Halako ariketetara mugatzen bagara, ez dugu bermatzen ikasleek euskal kultura ezagutzea. Beraz, nola bermatu ikasleak euskal komunitateko kide kritiko eta aktibo izatea eta, era berean, gaitasun komunikatiboak garatzea?

Derrigorrezko Hezkuntzako Curriculuma (EAE eta Nafarroa):

- ✓ Literaturaren historian: idazle esanguratsuenak irakurri eta interpretatzea.
 - ✓ Gaitasun komunikatiboak garatzea.
 - ✓ Irakurtzeko zaletasuna sustatzea.
-
- Helburuak nola erdietsi ez da zehazten, horixe salatzen dute irakasleek. Alegia, nola irakurzaletzen da? Nola garatzen dira komunikazio gaitasunak? Nola ezagutarazi lan eta autore esanguratsuenak irakaskuntzaren marko berri honetan?

Egungo egoera

□ Doktorego tesirako datuen iturriak

1) Batxilergoa

2) Hego EHko 825 ikasleri galdeketak

3) 19 irakasleri sakoneko elkarrizketak

4) 34 euskal idazle eta kritikariri delphya (askotariko adinak, generoak eta sonak; Euskadi Saria, Espainiako Sari Nazionala edo Espainiako Kritika Saria irabazi duten zortzi idazle)

5) Testuliburuaren eduki-azterketa



Lagina

Hego EHko lau hiriburuetan, bakoitzean bi ikastetxe (publikoa eta pribatua)

5.000-20.000 biztanleko bi herri lurralde bakoitzean; batak, %30 baino euskaldun alfabetatu gehiago, besteak, gutxiago. Herri bakoitzean bi ikastetxe (publikoa eta pribatua).

20.000 biztanletik gorako herri bana; batak, %30 baino euskaldun alfabetatu gehiago, besteak, gutxiago. Herri bakoitzean bi ikastetxe (publikoa eta pribatua).

Herriak eta ikastetxeak ausaz

Ikastetxe hrietako ikasle eta irakasleak

Ikastetxe horietan erabiltzen diren testuliburuak



Idazle eta kritikariekin delphya

Zer da delphya? Eztabaida anonimoa

Nola gauzatu nuen?

-telefonoz lehenbiziko harremana

-3 fase: emailez galderak > eratzunetarako hilabete >
adostasunak, ezadostasunak, galdera berriak > erantzuteko
hilabete > ...



Idazleen arteko eztabaida: ezadostasunak

□ Zein literatura mota irakurrarazi?

“MacDonalsen jaten ohitutakoak ez du inoiz onartuko arrainaren ederra. Kutsatu egin da, frogatuta dago, olio-tasa gehiegiak olio-alarma guztiak blokeatu dizkiolako, hala diote nutrizionistek. Gauza bera gertatzen da telebistarekin: zaborra ikustearen ikustez, ?Basetxea? interesgarria bihurtzen zaizu. Ez da posible inor zaletzea zaborrez, ez da etikoa. Edertasuna ez da zatika ematen, osoan baizik”.

“Euskaraz irakurri nuen lehenengoetarikoa Jon Arretxeren *Ostegunak* izan zen, barrez lehertzeko moduko liburu ederra, entretenigarria, zaletasuna egiten duten horietakoa, baina gure literatur sisteman liburu komertzialen artean sailkatua. Hau aitortzeak dakarren arriskuaz jabetuta nago [...] Batek baino gehiagok pentsatuko du liburu *txar* horiek liburu hobeagoetara jotzeko oztopo direla, baina nik aurkakoa uste dut, hau da, liburu onetara iristeko liburu horiek ezinbesteko pauso direla”.



Idazleen arteko eztabaida

- ❑ Ez dira ados jartzen erdiguneko idazleak deskribatzerakoan. Batzuek, salduenei erreferentzia; besteek, kontsagratuenei.
- ❑ Idazleen hierarkien inguruan: saihestezinak dira, baina euskal literaturaren kasuan, erdigunekoek son handia eta periferiako guztiak zaku berean (hedabideetan, batez ere). Bestalde, erdigunekoek lan guztiak dira onak? “Idazle bati egozten zaion kategoria ez dago zuzenean bere lanarekin lotuta, itsasten zaion etiketarekin baizik”.
- ❑ Hierarkiak kalitatearen arabera egiten direnean, lagungarriak zaizkio irakurleari. Baina, zoritxarrez, hemen merkatuak eragin handia dauka.
- ❑ Kritika zintzoagoa behar da, eta kritika akademikoa eta dibulгатiboa bereiztea.

Idazleen arteko eztabaida

- Zerk eragiten ditu hierarkiak?
 - Literatur kritikak (kritikaren funtzioaz eztabaida)
 - Sariketek (Euskadi Saria, Espainiako Sari Nazionala vs. Espainiako Kritika Saria)
 - Salmentek
 - Hedabideek
 - Eskolak (merkatuan eragin handia + idazleak betierekotu edo baztertu)
 - Publizitateak nahiz promozioak (hedabideen eta argitaletxeen jarrera)
 - kalitateak



Ikasle, irakasle eta testuliburuek iradokitzen dutena

- ❑ EGArako prestatzeko presioa
- ❑ Nafarroa vs. EAE
- ❑ Hizkuntza lantzeak dauka lehentasuna
- ❑ Testuliburuen artean alde nabarmenak, baina eredu kontzeptuala nagusi, oro har.
- ❑ Egungo egoera grafikoetan (Datuak: Batxilergoa Hego Euskal Herrian)



Grafikoeak iradokitzen dutena

- ❑ Hiru erdigune bereizi behar dira: literaturaren historia/ irakurgaiak.
- ❑ Erdiguneek elkarri eragiten diote.
- ❑ Erdiguneen aldaketa-erritmoa ezberdina da.
- ❑ Irakurgaietan itzulpen lanek leku urria dute.
- ❑ Bi erdigune genero bakarrera mugatzen dira.
- ❑ Kritika Sariaren eragina handia da: aipamenen %65 saritutako 16ek osatzen dute



Beraz, zeintzuk dira erdiguneko idazleak euskal literaturan?

Eta nola irakasten da literatura? Betetzen al dira curriculumeko helburuak?

- ❑ Irakurzaletasuna sustatzeko egiten diren irakurketen lanketa bakarra kontrol bat izaten da, irakurri dela frogatzeko.
- ❑ Autore eta lan esanguratsuenak ezagutarazteko helburuan, narratibara mugatzen gara.
- ❑ Komunikazio gaitasunak ez dira lantzen literaturaren bidez: ikasgela historia modu kontzeptualean irakasten da, eta etxean irakurtzen denari dagokionez, ez da ulermenean, adierazpenean, interpretazioan... (kom. gaitasunetan, oro har) sakontzen.



Aldaketaren beharra

- ❑ Curriculumeko helburuak ez direlako betetzen
- ❑ Ikasleak konpetentzietan hezteko beharra dugulako, baldin eta herritar kritiko eta aktiboak heziko baditugu.
- ❑ Literatura ulertzeko modua aldatu egin delako: literatura ez da literatur testua soilik, berau inguratzen duen guztia ere literaturaren parte da. Literatura jendartearen eratuakoa komunikazio-sistema bat da.


Yuri Tinianov, *De l'évolution littéraire* (1927)

Literatur lanak

Idazleak

Generoak





Lehen mailako elementuek erabakitzen dute zer den literatura. Horren harira... Zer da euskal literatura?

- Ez dakit zer esan nahi duzun “euskal herria” horrekin -esan zuen Alicek. Humpty Dumptyk irribarre egin zuen mesprezuz.
- Jakina ezetz... nik azaldu arte. Esan nahi dut: “borondatez sortu nahi dugun nazioa”.
- Baina “euskal herria” hitzak ez du esan nahi “borondatez sortu nahi dugun nazioa” -kontra egin zuen Alicek.
- Hitz bat erabiltzen dudanean -esan zuen Humpty Dumptyk mesprezu handiko doinuz-, hitz horrek nik aukeratzen dudana esan nahi du... ez gehiago ezta gutxiagorik ere.
- Kontua zera da -esan zuen Alicek-: ia eragin dezakezun hitzek hain gauza desberdinak adieraztea.
- Kontua zera da -esan zuen Humpty Dumptyk- arauemailea nor den, horixe da dena.

(Eduardo Apodaka, “Pentsamendu kolonizatuaren ajeak: euskal hitzaren kasu bitxia”, Lapiko Kritikoa)



Teoria komunikatiboak

- Literatura zer den kultura eta jendarte bakoitzak erabakitzen du, eta beraz, literatura zehazten eta arautzen duten legeak tenporalak eta espazialak dira.

Teoria komunikatiboak

INSTITUZIOA [testuingurua]

ERREPERTORIOA [kodea]

EKOIZLEA [igorlea] _____ KONTSUMITZAILEA [hartzailea]
("idazlea") ("irakurlea")

MERKATUA [kontaktua/kanala]

PRODUKTUA [mezua]



Euskal literatur sistemako faktoreak

ekoizleak: euskal idazleak (erdigunea nahiz periferia) nahiz itzulitakoak

Instituzioak: Eskola, EIE, Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza...


Errepertorioa: literatura idazteko eta interpretatzeko arauak eta baliabideak


Merkatua: argitaletxeak, zabaltzaileak, hitzaldiak, sariak, salmentak, azokak..

Produktuak: literatur testuak, generoa, itzulpenak, kalitatea, erreferentzialtasuna...

Kontsumitzaileak: ohiturak, gaitasun literarioa, aurrejuzkuak, gustuak, esperientziak...

Euskal literatur sistemako faktoreak






Nola eragiten diote elementu horiek
Eskolari? Zertan da literaturaren
irakaskuntza gaur egun?



Irakasleekin egindako elkarrizketak

- ❑ Irakurketak hautatzeko irizpideak, hurrenez hurren: a) EIEren *Idazleak ikastetxeetan* programa eta argitaletxeek antolatutako hitzaldiak; b) “salduenak” eta “sarituak” (sarien oihartzun mediatikoa); c) gomendioak eta iritziak.
- ❑ Ikasgelako edukietan, berriz, testuliburua da erreferentzia nagusia.
- ❑ Ikasleen euskara maila kaskarra, literatura irakasteko oztopo; horrek dakar, sarritan, idazle bataren edo bestearen aldeko hautua. Eta, beste batzuetan, literatura baztertzearena.
- ❑ Literatura irakastearen helburua ez dago argi: irakasle bakoitza bere kabuz.


Narrazioaren Kritika Saria ikasgelako edukietan



■ J.M. Irigoien
■ B. Atxaga
■ F. Juaristi
■ R. Saizarbitoria
■ J.M. Iturralde
■ P. Lizarralde

■ A. Lertxundi
■ J. Sarrionandia
■ X. Mendiguren
■ J.L. Zabala
■ P. Aristi
■ Inoiz saririk jaso ez dutenak

Generoen presentzia irakurgaietan



■ nobela

■ hur eta gazte literatura

■ poesia

■ saiakera

■ ipuinak

■ kronika

■ bidaia

■ biografia

Zenbait ondorio

- Hizkuntza eta literatura irakasgai berean, literaturaren bazterketa.
- Irakaskuntza-merkatua-irakaskuntza gurpil zoroan.
- Gutxienez bi erdigune mota bereizi behar ditugu: autonomia eta heteronomia.
- Curriculumeko helburuak ez dira betetzen, eta irakasleek salatzen dute ez dutela laguntzarik helburu horiek nola erdietsi erabakitzeko.



Etorkizunerako erronkak

- Ikasleek literatur gaitasuna eta gaitasun komunikatiboa garatzea.
- Ikasleek euskal literatura ezagutzea, bertoko lan eta idazle esanguratsuenak era kritikoan irakurriz.
- Ahal dela, literaturara zaletzea.

Horretarako, ezinbestekoa da metodologiak berritzea. Besteak beste, praktika hauek balia daitezke (lehen aipatutako praktikak ere ez dira baztergarriak, gure ustez):



Helburu horiei begirako praktika on batzuk

Poema bilduma

- SDaren nondik norakoak
- Azken xedea: hari bat izango duen poema bilduma sortzea. Horretarako, 15 euskal idazleren 15 poema + berek sortutako 5. Hori guztia + poemak biltzen dituen hariaren justifikazioa.



Literaturari buruzko azalpena eta antologia

<http://nagusia.berritzeguneak.net/es/noticias.php?id=1118>

- Gaia: ahozko euskal literatura eta narrazio literarioak.

Euskaraz, euskal ahozko literatura jorratu eta ikaskideen aurrean horren inguruko ahozko azalpena burutuko dute. Ondoren, ipuinen hautaketa eta bilketa egingo dute eta hautapenaren azalpena gaztelaniaz idatziko dute.



Euskal idazleei buruzko erakusketa

- Liburuaren egunean, esaterako, euskal idazleei buruzko erakusketa bat prestatu ikastetxerako. Horretarako, informazio-panelak, ahozko azalpenak, poema errezitaldiak/ ipuin kontaketak, testuei buruzko mahainguruak... antola daitezke.



Eskerrik asko